

GAUEKO HARRERA-ZERBITZUA, IRAUPEN LABURREKOA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **gizarte-bazterketa egoeran** daudenak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Bazterkeria egoera.

18 urte edo gehiago izatea.

Zertan datza?

Ettxerik gabeko pertsonen gaua pasatzeko baliabide bat eskaintzen dien harrera-zentroa ([1.8 fitxa](#)). Gainera, baliabide horiek otorduak (afaria eta/edo gosaria), higiene pertsonala, garbitegia eta larrialdietako oinarritzko arropa, informazioa eta orientazioa edo esku-hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea) eskaintzen dituzte. Egonaldia laburra da, eta gehienez astebeteko epea ezartzen da; behar izanez gero, luzatu egin daiteke. Urteko gau guztietan funtzionatzen dute, eta urteko aldi jakin batzuetan indartu daitezke, eskariaren igoerari erantzuteko.

Norentzat?

18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, **bazterketa egoeran** daudenak eta gaua pasatzeko baliabideren bat behar dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Gizarte-bazterkeriagatik **intentsitate txikiko laguntza** behar izatea.

Sartzeko **baldintza bakarra preskripzio teknikoa da**; zuzeneko sarbideko zerbitzua da, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik aurretik pasatu gabe eskura daiteke zerbitzua.

Zentroak higieine pertsonalari buruz eta zentroaren erabilerari buruz emandako **jarraibideak betetzeko konpromisoa** hartzea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)